




DONOSTIAKO BASERRITAR JANTZIEN I. LEHIAKETAREN OINARRIAK

Gero Axular Dantza Taldeak, Donostiako Udaleko "Donostia/San Sebastian Festak" departamentuarekin batera, baserritar jantzien lehiaketa antolatuko du Donostiako Gipuzkoa Plazan. Lehiaketaren helburua da San Tomaseko ferian baserritar jantzia duintasunez erabiltzeko ohitura bultzatzea eta zabaltzea.

Lehiaketan, bi alderdi baloratuko dira: alde batetik, jantziaren diseinua; eta, bestetik, jantziaren atal guztiak jantzteko era egokia.

Tokia: 35. postuaren aurrean (Gipuzkoa plaza).



Eguna: 2017ko abenduaren 21a, osteguna

Ordutegia: 12:00-13:15

- Haurrak: 12:00-12:30
- Helduak: 12:45-13:15
- Sari-banaketa: 13:45

1. PARTE-HARTZAILEAK ETA KATEGORIAK

Epaimahaia eskudun da, eta baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileei lehiaketan parte hartzea ukatu ahalko die. Odorengo kategoria hauetan parte hartu ahalko da:

- Hurren kategoria, nesken jantzia: 12 urte arte.
- Hurren kategoria, mutilen jantzia: 12 urte arte.
- Gazte eta helduen kategoria, emakumezkoen jantzia: 13 urtetik aurrera.
- Gazte eta helduen kategoria, gizonezkoen jantzia: 13 urtetik aurrera.

Kategoria bakoitzean, gehienez ere, 30 lagunek parte hartu ahalko dute, eta izen-ematearen ordena jarraituko da.

Parte hartuko duten haur guztiak 11:50ean egon beharko dira agertokian. Gazte eta helduak, ordea, 12:35ean.



2. IZEN-EMATEAK

Izena emateko, parte-hartzaileak bere datuak erregistratu beharko ditu inprimaki batean. Inprimaki hori Donostiako Udalaren webgune ofizialean egongo da (https://www.donostiakultura.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&cid=59&id=1180&Itemid=255&lang=eu), eta abenduaren 20ko 12:00ak arte egongo da izena emateko aukera. Edonola ere, lehiaketa egingo den tokian ere egongo da inprimakia betetzeko aukera (haurren kategorian, 11:50 arte; gazte eta helduen kategorian, 12:35 arte).

Parte-hartzaileek ondoren datuak eman beharko dituzte:

- Izen-abizenak
- NAN zenbakia edo AIZa
- Adina
- Telefono-zenbakia
- Helbide elektronikoa

Parte-hartzailea 18 urtetik beherakoa bada, bere aitak, amak edo tutoreak bete beharko du izena emateko inprimakia, parte-hartzailearen izen-abizenak eta adina adieraziz eta bere datu eta irudiak erabiltzeko baimena emanaz. Datuak babesteari buruzko indarrean dagoen legearekin bat etorritik, zera jakinarazten da: lehiaketan parte hartzeko eman diren datu pertsonal guztiak GERO AXULAR KULTUR TALDEAREN (helbidea: Katalina Eleizegi kalea, 48, 20009 Donostia) ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, izen-ematea kudeatzeko eta informatuta mantentzeko helburuarekin.

Parte-hartzailea jakitun da eta baimena ematen du bere datu pertsonalak eta irudiak hedabideetan argitaratzeko, eta, hala, lehiaketa sustatzeko. Parte-hartzaileek une oro erabil ditzakete datuetan sartzeko, aldatzeko, ezeztatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak. Horretarako, idatzizko komunikazioa bidali beharko dute info@geroaxular.com helbide elektronikora.

3. EMANALDIA

Lehiaketan zehar, antolakuntzak deritzonaren arabera posatu/desfilatu beharko dute parte-hartzaileak.

Gero Axular Dantza Taldearen webgunean (www.geroaxular.eus) baserritar jantziaren inguruan argitaratutako aholkuak jarraitu izana baloratuko da.

Egoki jantzita ez dauden parte-hartzaileak deskalifikatu ahalko ditu epaimahaiak.

Parte-hartzaileak posatzen duenean, argazki bat aterako zaio, eta taldearen sare sozialetan argitaratuko da.



4. EPAIMAHAIA

Antolakuntza Batzordeak gonbidatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia. Horien artean, Xabier Mendizabal jauna, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarreko presidentea, eta Ane Martínez andrea, jantzi-diseinatzailea, izango dira.

Epaimahaiak epai apelaezina emango du.

5. SARIAK

Sari-banaketa lehiaketa egingo den toki berean izango da, 13:45ean. Bertan izango dira Donostiako alkatea, "Donostia San Sebastian Festak"-eko zinegotzia delegatua eta Gero Axular Kultur Taldearen presidentea.

Kategoria bakoitzean, irabazle absolutu bat egongo da. Sari-banaketan irabazlea ez badago, sariari uko egin diola ulertuko da.

6. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan izena eman eta parte hartzeak adieraziko du xedatutako oinarri guztiak onartzen direla. Erregelamendu honen oinarriak betetzen ez badira, hautagaia deskalifikatuko da berehala.

Erregelamendu hau aurretiaz jakinarazi gabe aldatzeko eskubidea erreserbatzen dute antolatzaileek. Orduetgiak eta parte-hartzaileen paseak aldatzeko eta izen-emate gehiago ez onartzeko eskubidea ere erreserbatzen dute.